

Pirata baten kutxan aurkitutako uharteko mapa

Ametsak eta desirak ez al dira errealitatearen atal? Izan al da sekula urre bila ibili ez den umerik? Edo pirata, militar buruzagi ala bide-lapur izan ez denik? Honelako gogoetak zituen buruan R. L. Stevensonek *Altxor Uharte*a abenturazko nobela idazterako orduan. Jim Hawkins mutikoa du kontalari eta heroi nagusi eleberriak, eta haren begietatik ikusiko ditu irakurleak altxor bila espedizioan parte hartzen duten guztien ezaugarriak. Helduen mundura egindako lehen bidaia da hura gaztearentzat, eta maiz nahastuta geratzen da ezagutzea egokitu zaion jendearen aurrean, ez baita gai haien artean zintzo-zintzorik, ez gaizto-gaiztorik aurkitzeko. Batere gustuko ez zuen pirata baten marinel-kutxan aurkitu zuen Flint itsaslapur beldurgarriaren altxorra gordetzen zuen uhartearen mapa. Konfiantzako pertsonari bere aurkikuntzaren berri eman orduko, harantz abiatzea erabaki zuen espedizio oso batek, mutikoa tartean zela, *Hispaniola* baleontzian. Eskifaian, ordea, isilka sartu zitzaizkien altxorraren mapa bereganatzeko grinaz zebiltzan itsaslapur ugari. Baina horretaz berandu ohartu ziren, enbaten erasoak itsasoan jasaten ari zirenean.



Titulua:	“Altxor uharte”
Autorea:	R. L. Stevenson
Itzulpena:	María Garikano
Argitaletxea:	ELKAR
Orrialde kopurua:	316
Prezioa:	19,45 €

ARGIA. 2008ko uztailaren 27a.

21. Zure ustez zein izango litzateke testu honen igorlea?

- A. R.L. Stevenson
- B. Pilar Iparragirre
- C. Ez dago jakiterik inork ez duelako sinatu.
- D. Maria Garikano

22. Eta hartzailea? Nori zuzendua legoke testu hau? Aukeratu erantzunik zehatzena.

- A. Pirata liburuak gustukoak dituzten irakurleei.
- B. Stevensonen liburuak gustukoak dituzten irakurleei.
- C. Euskaraz irakurtzen dakien edozein irakurleri.
- D. Argia aldizkariko irakurleei eta euskarazko liburuak irakurtzea gustukoa dutenei.

23. Zein izango litzateke testu honen komunikazio asmoa? Aukeratu erantzunik zehatzena.

- A. Irakurleak entretenitzea.
- B. Liburuari buruz iritzia ematea.
- C. Liburuaren kritika egitea.
- D. Irakurtzeko zaletasuna bultzatzea.

24. Nor da Altxor uhartea liburuaren kontalari edo narratzailea?

- A. R. L Stevenson
- B. Pilar Iparragirre
- C. Jim Hawkins
- D. Ez dago jakiterik liburua irakurri gabe.

25. Zein genero literariotan sailkatuko zenuke Altxor uhartea liburua?

- A. Abenturazko nobela.
- B. Nobela historikoa.
- C. Nobela errealista.
- D. Komiki bat.

26. Testu honetan azaltzen da liburuan azalduko diren zenbait pertsonaia. Nortzuk?

- A. Jim Hawkins
- B. Flint itsaslapurra
- C. Jim Hawkins eta Flint itsaslapurra
- D. Stevenson, Jim Hawkins eta Flint itsaslapurra.

27. Dakizun bezala, kontakizun askok (ipuinek, nobelak,...) ondorengo egitura izaten dute: Hasierako egoera – Arazoa – Ekintzak – Bukaerako egoera.

Testuan zenbait datu ematen dira, eta datu horiek atal batekoak edo bestekoak izan daitezke. Ipini X aipatzen den datu bakoitzari dagokion atalean:

	HASIERAKO EGOERA	ARAZOA (GATAZKA)	EKINTZAK	BUKAERAKO EGOERA
Pirata baten marinel-kutxan aurkitu zuen Flint itsaslapur beldurgarriaren altxorra gordetzen zuen uhartearen mapa.				
Konfiantzako pertsonari bere aurkikuntzaren berri eman orduko, harantz abiatzea erabaki zuen espedizio oso batek, mutikoa tartean zela, <i>Hispaniola</i> baleontzian.				
Eskifaian, ordea, isilka sartu zitzaizkien altxorraren mapa bereganatzeko grinaz zebiltzan itsaslapur ugari. Baina horretaz berandu ohartu ziren, enbaten erasoa itsasoan jasaten ari zirenean				

28. Altxor uhartea liburuko protagonistak jende asko ezagutuko du liburuan zehar, baina nolako jendea aurkituko du pertsonaia horien artean?

- A. Gehienak zintzoak.
- B. Gehienak gaiztoak.
- C. Ez gaizto-gaiztoak, ez zintzo-zintzoak.
- D. Gaizto-gaiztoak eta zintzo-zintzoak.

29. Zer esan nahi du “Helduen mundura egindako lehen bidaia da hura” esatean?

- A. Itsas espedizio batean parte hartzen zuen lehen aldia zela.
- B. Itsasoan belaontzian ibiltzen zen lehen aldia zela.
- C. Etxetik irteten zen lehen aldia zela.
- D. Jende helduekin harremanak izan zituen lehen aldia zela.